



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

2020eko MAIATZAREN 19EKO BILKURAKO AKTA

Bilkura : Ohikoa

Eguna: 2020/05/19

Ordua:18:00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Josu Ozaita Azpiroz . Alkatea

Maribi Garmendia Oyarbide .Zinegotzia

Juan Mari Iturrioz Goñi .Zinegotzia

Jaione Olano Etxeberria .Zinegotzia

Andoni Olano Manzano .Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

- 1.-2020eko apirila 14ko Bilkurako akta onartzea , hala balegokio .
- 2.-Baliarraingo ile apaindegiko zerbitzuaren egoera aztertu eta dagokiona erabaki .
- 3.-Baliarraingo aterpearen egoera ezagutu eta dagokiona erabaki .
- 4.-Hilerriko zerbitzuak eskaintzeko kontratua aztertu eta dagokiona erabaki .
- 5.-Alkatearen dimisioa onartu eta bere ordezkoa izendatzea .
- 6.-Udal espedienteak ele bietan edo euskara hutsean egokitzea erabakitzea .
- 7.-Alkateak eman dituen ebazpenak jakinaraztea 2020-13 bis , 2020-14 eta 14 bis .
- 8.-Legealdiko egitasmoko atalak aztertzea .
- 9.-Herriko uren probetxamenduan , goikoa taldean ere udalak parte hartzea onartzea , eta horretarako dagokion ordainketa egitea .

1.-2020EKO APIRILA 14KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA , HALA BALEGOKIO .



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2020-04-14ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira . Alkateak galdetzen zerbait zuzentzeko ikusten den. Mahaikide guztiak ados agertu dira eta dagoen bezala onartuta geratu da.

2.-BALIARRAINGO ILE APAINDEGIKO ZERBITZUAREN EGOERA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI .

Baliarraingo ile apaindegiaren kontzesioa , 2020eko martxoaren amaieran betetzen zuen berriro berritzeko epea .

2020 urtean eta martxoan zegoen egoera ikusita , deialdia berria egin ordez , urte amaiera arte lehen zerbitzua eskaintzen duenari luzapena egin eta ondoren deialdia egitea pentsatu zen , alarma egoeraren barruan geundelako .

Bestetik, ile apaindegiko zerbitzua eskaintzen duenak ere Baliarraingo ile apaindegiaren egonkortasuna eta bideragarritasun ekonomikoaren berri agertzea nahi zuen kudeatzaileak eta horrela etorri zen bilkurara .

Ile apaindegiaren gau eguneko kudeatzaileak , adierazi du , argia , berogailua eta uraren gastuak bere gain izaten direla eta horiek hilean 100 euro inguru izaten dituela . Gastu hauekin , bere jarduera ez dela bideragarria ekonomikoki adierazi du .

Baita ere , udalari alokairua ordaindu ordez , herritarrei bere zerbitzuetan prezio hobeagoa egiteko baldintza eskatu zitzaioela dio .

Guzti honekin , pena handiarekin baina bere jarduera Baliarrainen ez dela bideragarria ekonomikoki adierazi du .

2020 urtearen amaiera arte zerbitzuarekin jarraitzea proposatu da eta 2020 urteko udazkenean berriro deialdia egitea aurrez baldintza plegua ondo gainbegiratu ondoren .

Eta azkenik ERABAKI DA :

- 1.- 2020 urtearen amaiera arte zerbitzuarekin jarraitzea.
- 2.- 2020 urteko udazkenean berriro deialdia egitea aurrez baldintza plegua ondo gainbegiratu ondoren.

3.-BALIARRAINGO ATERPEAREN EGOERA EZAGUTU ETA DAGOKIONA ERABAKI .



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

Baliarraingo aterpea bisitatu da ,Zartagi jatetxearen kudeatzaileak gidatuta. Gaur egun aterpearen erabilera pribatua egiten ari dira Zartagiren kudeatzaileak , erabilpen publikoa emateko legeak ezarritako baldintzak betetzen ez direlako , adibidez , irisgarritasuna .

Gai honen inguruan eta turismoaren gaia ere eztabaidatu da .Baliarraingo udalerrian ze turismo mota nahi den , turismoak herritarrei egiten dioten ekarpena ,e.a.

Gaur egun aterpean hiru logela eskaintzeko daudela ikusten da , bi logela egokitu egin beharko liratekeela , eta agian , udal arkitektoak aztertu beharko du hiru logela horiek legeztatzeko gutxieneko baldintzak bete daitezkeen

Bestetik , eskualdeko turismo arduradunarekin egon eta bertaratzen turismoaren datuak , nondik etortzen diren , ze eskatzen duten , alojamendu datuak e.a jakitea ere komeni dela ikusten .

Guzti honengatik , ERABAKI DA :

- 1.-Gaur eguneko hiru logela zerbitzua emateko aukera ote dagoen udal arkitektoak aztertzea .
- 2.-Tolosaldeko turismo bulegotik datuak biltzea .

4.-HILERRIKO ZERBITZUAK ESKAINTZEKO KONTRATUA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI .

2013eko urriaren 22ean ,Baliarraingo hilerrian inhumazio eta exhumazio lanak burutzeko kontratua sinatu zen , 2013eko irailaren 17eko Osoko Bilkuran publikizatetik gabeko prozedura negoziatua bidez esleipena egin ostean .

Baliarraingo hilerriko inhumazio eta exhumazioak Hargoi enpresak burutu izan ditu , azken zazpi urte hauetan .

Kontutan hartuaz, Baliarraingo hilerrian 2013 urtetik hasi eta 3 hilobiratze lanetan parte hartu izan dutela .

Kontutan hartuaz , berriro deialdia egitea bidezkoa izan arren kasu gutxi izan direla ikusten da .Eta berriro deialdia egin ordez , lehengo zerbitzuarekin jarraitzea proposatzen da, ondorengo baldintzetan .



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

- .-Zerbitzua , urteko 365 egunetan izatea .
- .-Kasu bakoitzerako bi pertsonen artean zerbitzua eskaintzea.
- .-Erantzukizun zibileko aseguruaren barne .
- .-Zerbitzua emateko beharrezkoa den materiala enpresaren kontu.
- .-Bertan sortzen den hondakina baimendutako lekuetara garraiatzea enpresaren gain.
- .-Inhumazio eta exhumazio bakoitzaren balioa 252,00 euro gehi beza .

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

Hilerriko zerbitzua inhumazio eta exhumazio kasuetarako Hargoi enpresarekin jarraitzea , eta hitzarmena sinatzeko alkatea baimentzea.

5.-ALKATEAREN DIMISIOA ONARTU ETA BERE ORDEZKOA IZENDATZEA .

Alkateak , legealdiaren hasieran taldeak erabaki bezala , legealdi honetan , alkateak txandakatuaz joango zirela eta horren ondorioz ,dimisio idatzia aurkezten du , ondoren esan bezala :

“Josu Ozaita Azpiroz , Baliarraingo udaleko alkatea denak

ADIERAZTEN DU :

2019eko ekainaren 15eko datarekin , Baliarraingo udal korporazioa osatu zela , eta batzar berdinean , alkatea izateko izendapena eta kargua ere hartu nituela .

Korporazio berria osatzerakoan , taldearen helburu nagusia auzolana egitea zen , eta alkatea kargua ere kide guztiek bere gain hartzea .

Helburu nagusia betetzearren , legealdi osoko alkatetza kargua bost kideen artean banatzea da Auzolanaren eginkizun nagusietako bat .

Horregatik , Josu Ozaita Azpiroz jaunak alkatetza kargua 2019eko ekainaren 15ean hasi zuen eta 2020eko martxoaren 30ean amaitzen zen . Estatuaren alarma egoera dela eta , 2020eko maiatzaren 19 ko Osoko Bilkura alkatetza kargua eramango duela , eta Osoko bilkura honetan bere dimisioa aurkeztu eta alkate ordea denak Alkate kargua hartu beharko duela . 2020eko maiatzaren 19ko Bilkuran , Alkate kargua izendatzeaz gain , alkate orde kargua ere izendatu beharko da .



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

Adierazpenak hauek kontutan hartuta , alkateak **ESKATZEN DU** :

BAT.-Josu Ozaita Azpiroz jaunaren dimisioa onartzea .

BI.- 2020eko maiatzaren 20etik aurrera gaur eguneko alkate ordeak alkate kargua hartzea ondorio guztietarako .

HIRU .-2020-05-19ean ere alkate ordearen kargua izendatzea .

Baliarrainen , 2020eko apirilaren 28ean .”

Mahaikideek **ERABAKI DUTE** :

Bat.-Legealdiko akordioan oinarrituta , alkate eta alkate orde karguak partekatzea izanik , JOSU OZAITA AZPIROZ jaunak alkate kargua uzten du eta JAIONE OLANO ETXEBERRIAK alkate orde kargua uzten du, eta Osoko Bilkuran kargu uztea onartzen da .

Bi.- Hauteskunde Erregimen Orokorra Arautzen duen ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, bere 196. Artikuluan agindutakoari jarraiki, 2019-2023 legealdirako Baliarraingo Udaleko Alkate-Lehendakaria eta Lehendakari ordeak izango direnaren hautaketa egin zen, eta denek honen berri izan dezaten, jarraian bere nortasuna ezagutarazten da.

Alkatea : JAIONE OLANO ETXEBERRIA Auzolanean bizirik taldea.

Alkate ordeak : JUAN MARI ITURRIOZ GOÑI Auzolanean bizirik taldea.

6.-UDAL ESPEDIENTEAK ELE BIETAN EDO EUSKARA HUTSEAN EGOKITZEA ERABAKITZEA .

Idazkariak jakinarazten du Baliarraingo udalak , orain arte eta modu presentzian edo aurrez aurrekoan , eskaerak bideratzen direnean , inprimakiak eta ebazpenak euskara hutsean egiten direla .

Orain , zerbitzu telematikoak eskaintzeko hodei birtualean eskaera inprimakiak jarri behar dira , eta UEMA barruan udal gehienek ele bietan jartzen dituzte inprimaki hauek.

Baliarraingo kasuan inprimaki eta eskaera orrian hodei birtualean jarri behar direnak nola izan behar duten galdetzen da .

Aurrez aurreko eskaera den kasuan , inprimakia euskaraz egon arren , euskara ezagutzen ez dutenei bertan eskaera betetzen laguntzen zaie .Aldiz , hodei birtuala bidez laguntza eskaintzea zailagoa egiten da .



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

Bestetik esan , behin baino gehiagoetan ere entzun dugula , zenbait udala UEMA barruan egon arren, inprimakiak ele bietan ematen dituztela ,eta Baliarraingo udalaren jarrera aurrean haserrea adierazten dutela .

Udal zinegotzie guztia adierazi ondoren ,ERABAKI DUTE:

- 1.-Baliarraingo udalak ele bietan hastea atzera pausoa ematea liratekeela
- 2.-Euskararen garapenerako hodei birtualean ere euskaraz bakarrik inprimakiak zintzilikatzea .

7.-ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENAK JAKINARAZTEA 2020-13 BIS, 2020-14 ETA 14 BIS .

Alkateak emandako ebazpenak izan dira :

- 13.bis.- Heu Neuko jarduera baimena legezatzeko agiri eskaera
13.bis.-Jon Garmendiari jarduera baimena legezatzeko agiri eskaera
Mahaikideek jakinaren gainean geratu dira .

8.-LEGEALDIKO EGITASMOKO ATALAK AZTERTZEA .

Korporazioa legealdiko egitasmoa osatzen ari da eta atal batzuek beran lantzeko asmoa zegoen , baina azkenean beste egun baterako utzi da .
Egitasmoa osoa amaitzen dutenean , herritarrei helaraztea erabaki da.

9.-HERRIKO UREN PROBETXAMENDUAN , GOIKOA TALDEAN ERE UDALAK PARTE HARTZEA ONARTZEA , ETA HORRETARAKO DAGOKION ORDAINKETA EGITEA .

Udalak dituen herri terrenoak erabili ahal izateko deialdi publikoa egin zuen . Lur hauen ustiapena egingo duena , inguruko herriko nekazaria izan da lau urteetarako .

Ustiapena egiten duen erabiltzaileak ,lur horietan ura izatea egokia ikusi du eta aukera badagoela adierazi du .

Baliarraingo udalerraren kasuan , uren onura jasotzeko eskubidea herritarrek edo herriko lur sailek erabiltzen dutenak izateko aukera dute .



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

Horretarako , herriko uren onura jaso ahal izateko , zenbait akordio hartu dira eta bi talde ere osatu dira , goiko taldea eta beheko taldea . Udala, beheko taldean sartu zen , beheko lorategi , parkeak eta hilerrirako ura izateko aukera izan dezagun . Horrela udala , beheko taldean , beste herritarrekin bezala taldeko kidea da ,bertako gastuetan ere parte hartuaz .

Orain , udalaren lur sailen ustiapena egiten duenak ikusi duen beharra kontutan hartuaz, ustiapena egiten duena goiko taldeko kide izan ordez , udala bera kide izatea egokiagoa ikusten da . Horrela, udalak bere lurren ustiapen deialdia egiten duenean , lur horiek ura izateko eskubidea izango lukete .

Udalak goiko taldean parte hartu ahal izateko , beste kideek egin duen ekarpen berdina egin beharko luke eta zenbateko hori 103,71 euro dira .

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

- 1.-Baliarraingo udalak herriko uren ustiapenean , beheko taldean bezala goiko taldean ere parte hartzea eta kide izatea .
- 2.-Baliarraingo udalak goiko taldekoek egin zuten ekarpenaren berdina egitea , hau da kasu honetan 103,71 euro .
- 3.-Goiko taldeko kideei , udalaren erabakia jakinaraztea , hemendik aurrera kide bat gehiago izango dela esanez .

Gai zerrenda agertzen diren gaia hauetaz , beste puntu hauek ere aipatu dira :

BAT.-Zenbait nekazari eta baso ustiapen egiten ari direnez , hauek Muñogaineko auzoko bidea igotzeko bezala jeisteko ere erabiltzen ari direla ikusten ari gara . Lehen , kasu hauetarako udalak seinalea jartzen zuen , “ kontuz traktoreak dabilta “ esanez . Orain ezer ez da jarri eta arriskua gerta daiteke.

Horregatik , erabaki da :

- 1.-Bidearen erabilera aurkako norabidean egiten den kasuan , aurrez udalari jakinaraztea . Eta horretarako bide erabiltzaile bakoitzari erabakiaren berri emateko geratu da.
- 2.-Bide erabiltzeek , aukako norabidea egin behar dutenean , udalari jakinarazi ondoren, udalak seinaleak jarriko ditu .

BI.-Adinekoen jarduera Ane Garmendiak zuzendu izan duela aurten baina bi saio bakarrik egin dituela , azaldu du Jaionek . eta Anek adierazi diola bi saio ez dituela kobratuko .

Horregatik erabaki da afari edo hamaiketako bat herriko ostatuan ematea .



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

HIRU.-Errepidean zenbait puntutan zulo asko daudela eta errepasso emateko Aldundiari eskatzea geratu da .

LAU.-Urtegiko pistan , puntu batetan, bidea estutzen ari dela eta ur kontsorzioari jakinaraztea erabaki da .

BOST .-Energiaren inguruan Artico etxeak egindako lanaren azalpena eman da . Balorazio horretan ostatuko energi kontsumoa ere kontutan hartzea egokia ikusi da . Bide batez , Goiener etxeari ere , udalaren kontsumoa zenbat den jakin ondoren plaka fotoboltaikoen eskaintza egitea eskatzeko geratu da.

Eta besterik ezean, gaueko 10:30 etan bilera amaitutzat eman zuen alkateak .

Alkateak

Idazkariak